

Galdera

Anatomiari buruzko lexikoa kontsultatzeko, zein da egun erabiltzen den hizteirik aproposena, lexiko espezifikoak jasotzen duena goi-mailako ikasketak egiteko?

1/ Guk ezagutzen dugun lanik mardulena hau da:

Giza anatomiako atlasa

Anatomia deskriptiboa eta anatomia topografikoa eta sekzionala konbinatzen ditu. 725 orrialde eta 14 atal ditu. Giza gorputza bere osotasunean azaltzen da testu zabal honetan, eta, giza anatomiaren euskarazko terminologia osoa biltzen du. Terminoekin batera, azalpen lagungarriak eta irudi zehatzak ditu liburua. Medikuntzan eta osasun zientzietan erreferentziazko testuliburua da, "Máster" Atlas de Anatomía lanaren itzulpena da, Marbán argitaletxeak plazaratua.

Argitaratzailea: [Euskal Herriko Unibertsitateko \(UPV/EHU\) Argitalpen Zerbitzua](#)

Gaia: Medikuntza

Zenbat orrialde: 726

Argitaratze-data: 2014

ISBN/ISSN: 978-84-9860-967-7

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen-mota: paper-azalez





Prezioa BEZa barne ≈ 60,00 €

Interneteko denda ezagunenetan ere aurkituko duzu antzeko prezioan.

EIMA katalogoan ere jasota dago argitalpena, esteka honetan:

[Giza anatomiako atlasa E \(eimakatalogoa.eus\)](#)

Hona irudi batzuk:



2/ [Euskalterm](#) Terminologia-bankuan ere, beste maila batean bada ere, laguntza aurkitu dezakezu, hainbat hiztegi espezializatu biltzen ditu eta.

[Hiztegiak, banku terminologikoak eta entziklopediak](#)

[Euskalterm Terminologia-bankuaren edukian bildutako hiztegi guztiak](#)

3/ Lagungarri izan ditzakezu halaber Hiztegia.net webguneko gaikako hiztegiak (<http://www.hiztegia.net/gaika.php>); adibidez, [Medikuntza Hiztegia](#), eta beste.